


**M**<sub>LH4</sub>

2019-2020



# Zuzenketa koaderno

*Izen-deiturak:*

*Ikastetxea:*


*Taldea/Gela:*

*Herria:*

*Data:*

**Matematika  
gaitasuna**

**Lehen Hezkuntzako 4.a**



# Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzun beharko diezu.

Galdera mota desberdinak topatuko dituzu. Batzuek lau aukera dituzte erantzuteko; haietan, aukera zuzen bakarra hautatu beharko duzu, eta biribil batekin inguratu haren ondoan dagoen letra. Esate baterako:

**Zenbat da  $2 + 5$ ?**

A. 2

B. 6

C. 7

D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin zure lehenbiziko aukera eta inguratu biribil batekin erantzun zuzen berria, adibidean agertzen den bezala:

**Zenbat da  $2 + 5$ ?**

A. 2

B. 6

C. 7

D. 11

**Soilik idatzi beharko dituzu** eragiketak hala egiteko esaten dizuten galderetan. Galdera horietan hau bezalako lauki bat ageri da:

**Eragiketak:**

Beste galdera batzuetan eskatuko dizute erantzuna idazteko puntuekin seinalatzen den tartean:

**Idatzi zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangeluak.**

.....




**Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.**

# Artelanak


Artelan asko museoetan daude. Ez denak, hala ere, beste batzuk kanpoan baitaude.

Gure komunitatean, artelan asko Nafarroako Museoan daude.




1. Beha ezazu artelan hau. Zer motatako triangelua da laranja?

- A. Aldekidea
- B. **Zuzena**
- C. Isoszelea
- D. Zorrotza



2. Irudian Nafarroako Museoaren lehen solairuaren planoak ageri da. Azalerarik handiena duen aretoa da...

- A. **2** aretoa
- B. **3** aretoa
- C. **4** aretoa
- D. **5** aretoa



Begira iezaiozu Iruñeko Alde Zaharraren planoari. Hurrengo bi galderi erantzuteko erabiliko duzu.



3. Zer bi kale dira perpendikularrak?

- A. Hilarión Eslava kalea eta Kale Nagusia
- B. Kale Berria eta San Frantzisko kalea
- C. Estafeta kalea eta Calderería kalea
- D. Kale Nagusia eta Jarauta kalea

4. Turista bat Nafarroako Museotik atera da eta ostatu ematen dion etxera abiatu da. Begira iezaiozu irudiari eta jarrai itzazu jarraibideak.

- Santo Domingo kaletik doa eta Udaletxe enparantzara iritsi da.
- Ezkerretara bira egin eta Mercaderes kalean aurrera doa.
- Eskuinetara dagoen bigarren kalea hartu du eta bere etxera iritsi da.

Turistak zer kaletan hartu du ostatu?

- A. Kale Nagusian
- B. Txapitela kalean
- C. Estafeta kalean
- D. Kale Berrian

5. Turista 16:45ean sartu da Nafarroako Museoan eta 19:18an atera da. Zenbat denbora egon da barnean?

- A. Ordu 1 eta 3 minutu
- B. Ordu 1 eta 33 minutu
- C. 2 ordu eta 3 minutu
- D. 2 ordu eta 33 minutu



6. Aurreko asteazkenean museo horretara etorri ziren 24 ikasleko 4 talde eta 19 ikasleko 3 talde. Museoak 9 ikasleko taldetan antolatu zituen. Zenbat talde antolatu ziren?



Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.

**Eragiketak:**

*Zenbait metodo baliozko daude, adibidez:*

$$4 \times 24 = 96$$

$$3 \times 19 = 57$$

$$96 + 57 = 153$$

$$153 : 9 = 17 \text{ ikasle}$$


Antolatu ziren ikasleen .....**17**..... talde.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	- Planteamendu okerra edo osatu gabea. - 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
1	- Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite <b>bakarra</b> egin du.
2	- Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

7. Begira iezaiozu taulari. Aste honetan Nafarroako Museoa bisitatu duten ikasle kopuruaren datuak dituzu.

Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
28	22	30	16


Adieraz itzazu datu horiek barra-diagrama batean.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	- Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	- Barra guztiak zuzen egin ditu, bakoitzari dagokion altuera emanda.

8. Asierrek, Irunek eta Martak elkarrekin pintatuko dute irudiko lamina; horretarako, 6 puska berdinetan zatitu dute.

- Asierrek Martak baino puska gutxiago pintatu ditu.
- Irune izan da puska gehien pintatu dituen.
- Hiruen artean lamina osoa pintatu dute.



Laminaren zer zatiki pintatu du bakoitzak?

Asierrek pintatu du  $\frac{1}{6}$ , Martak pintatu du  $\frac{2}{6}$  eta Irunek pintatu du  $\frac{3}{6}$

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	- Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	- Erantzun zuzena: Asierrek 1/6, Irunek 2/6 edo 1/3 eta Martak 3/6 edo 1/2.

9. Gaur ikastetxe bateko 40 ikasle etorri dira Nafarroako Museora. Ikasleetatik  $\frac{3}{5}$  1. solairuan daude eta gainerakoak, berriz, 2. solairuan. Zenbat ikasle daude 2. solairuan?

Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.

**Eragiketak:**  
*Zenbait metodo baliozko daude, adibidez:*  
 A metodoa: 40ren  $\frac{3}{5} = 24 \rightarrow 40 - 24 = 16$  ikasle  
 B metodoa: 40ren  $\frac{2}{5} = 16$  ikasle  
**Bigarren solaiuran .....16..... ikasle daude.**

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	- Planteamendu okerra edo osatu gabea. - 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), eragiketa edo eragiketak idatzi gabe.
1	- Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

10. Kalkula ezazu zenbat bisitari etorri ziren abenduan Nafarroako Museora, honako pista hauek kontuan izanda:

- Hiru zifrako zenbakien artean izan daitekeen handiena da.
- Zifra guztien batura hogeita da.
- Zifra guztiak desberdinak dira.

Idatz ezazu laukitxo bakoitzean dagokion zifra.

9
8
3
 bisitari

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	- Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	- Erantzun zuzena: <u>983</u> .

**11. Zenbat orduz egonen da irekita Nafarroako Museoa 2020ko maiatzaren 1etik 7ra, bi egun horiek barne direla?**

Maiatza 2020						
Al.	As.	Az.	Os.	Or.	Lr.	Ig.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Nafarroako Museoaren ordutegia	
<b>Asteartetik larunbatera:</b>	10:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:00.
<b>Igande eta jaiegunetan:</b>	11:00 - 14:00
<b>Jaieguna:</b>	maiatzaren 1a.
<b>Itxita:</b>	asteleheneretan, urtarrilaren 1ean, uztailaren 6an eta 7an, eta abenduaren 25ean.

**Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.**

**Eragiketak:**

*Zenbait metodo baliozko daude, adibidez:*

- Ostirala jaieguna (maiatzaren 1a): 3h
- Larunbata (maiatzaren 2a): 6h
- Igandea (maiatzaren 3a): 3h
- Astelehena (maiatzaren 4a): Itxita
- Asteartea, asteazkena eta osteguna (maiatzaren 5a, 6a, 7a): 6h x 3 = 18h

Guztira: 3 + 6 + 3 + 18 = 30h

**Aste horretan museoa irekita egonen da .....30..... orduz.**

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	- Ez ditu egunak eta ordutegiak bereizten edota ez ditu zuzen lotzen, eta beraz, erantzun okerra ematen du.
1	- Egunak eta ordutegiak bereizten ditu eta zuzen lotzen ditu, baina erantzuna okerra da. - Erantzun zuzena ematen du nahiz eta oker bereizi edo oker lotu egunak eta ordutegiak.
2	- Egun bakoitzeko ordutegiak zuzen bereizten ditu, batuketa zuzen egiten du eta erantzun zuzena ematen du.

**12. Museoan egon garen bitartean artelanei 150 argazki egin dizkiegu. Album bat egin nahi dugu eta orrialde bakoitzean 3 argazki jarriko ditugu. 28 orrialde bete ondoren kalkulu hauek egin ditugu:**

$28 \times 3 = 84$
$150 - 84 = 66$




**66 zenbakiak zein galderari erantzuten dio?**

- A. Zenbat argazki izanen ditu azken orrialdeak?
- B. Zenbat orrialde izanen ditu albumak?
- C. Liburua bukatzeko zenbat orrialde falta zaizkigu?
- D. **Zenbat argazki jartzea falta zaigu?**

**13. Begira iezaiozu artelan honi. Zenbat karratu ikusten dituzu?**

- A. Bat ere ez
- B. 1
- C. 3
- D. **6**



**14. Arte garaikideko erakusketa batean irudiko obra jarri dute. Lerro gorriarekiko simetrikoa da?**

- A. Bai
- B. **Ez**
- C. Lerroaren loditasunaren araberakoa da
- D. Lerroaren kolorearen araberakoa da



**15. Begira iezaiozu Eduardo Torroja institutuan dagoen eskultura honi. Hamabi aurpegi ditu, tamainaz eta formaz berdinak direnak. Zer forma dute bere aurpegiek?**

- A. Heptagono batena
- B. Hexagono batena
- C. Oktogono batena
- D. **Pentagono batena**



**16.** Irudian Pablo Picassoren “Gernika” obra ageri da. Zein da bere perimetroa?



“Gernika” obrari buruzko datuak	
Data	1937
Teknika	Oihal gaineko olio-pintura
Neurriak	Altuera: 349 cm Zabalera: 777 cm
Kategoria	Pintura

Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.

**Eragiketak:**

*Zenbait metodo baliozko daude, adibidez:*

A metodoa:  $349 + 349 + 777 + 777 = 2252$  cm

B metodoa:  $(2 \times 349) + (2 \times 777) = 698 + 1554 = 2252$  cm

**"Gernika" obraren perimetroa .....2252..... zentimetro da.**

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Planteamendu okerra edo osatu gabea.</li> <li>- 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), eragiketa edo eragiketak idatzi gabe.</li> </ul>
1	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere, eskatutako neurri unitatean.</li> </ul>

# Hipika

Hipikara joan gaitezke zaldiz paseatzera. Horretarako, zaldi zela eta kaskoa erabili behar dira.



**17.** Mainer, haren anaia Javier eta gurasoak hipikara joan dira. Familia osoak ordu bateko paseoa egin du zaldiz. Mainerren amak 72 euro ordaindu ditu guztira. Kalkula ezazu zenbat balio duen ordu bateko paseoa, pertsona bakoitzeko.

Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.

**Eragiketak:**

$$72 : 4 = 18 \text{ euro}$$




Ordu bateko paseoaren prezioa da .....**18**..... euro pertsonako.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	- Planteamendu okerra edo osatu gabea. - 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), eragiketa edo eragiketak idatzi gabe.
1	- Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

**18.** Lagun talde batek egun osoko paseoa egin du zaldiz. Goizean hipikatik lakura joan dira. Askaldegira ailegatu dira eta han geldialdia egin dute, bazkaltzeko. Arratsaldean hipikaraino segitu dute.

Ikus ezazu irudi honetan zer distantzia egin duten.



Goizean arratsaldean baino zenbat metro gehiago egin dituzte?

Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.

**Eragiketak:**

*Zenbait metodo baliozko daude, adibidez:*

$$4864 + 6358 = 11222 \text{ metro}$$

$$11222 - 8796 = 2426 \text{ metro}$$

**Goizean ..... 2426 ..... metro gehiago egin dituzte arratsaldean baino.**

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	<ul style="list-style-type: none"> <li>Planteamendu okerra edo osatu gabea.</li> <li>0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), eragiketa edo eragiketak idatzi gabe.</li> </ul>
1	<ul style="list-style-type: none"> <li>Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere, eskatutako neurri unitatean. Baita ere, ontzat emango da ondoko erantzuna: 2 km eta 426 metro.</li> </ul>

- 19.** Paseoa zaldiz egin duten lagunetako batek txokolatezko bizkotxoa eraman du. Ikus irudian bizkotxoaren errezeta.



- a) Zenbat txokolatezko bizkotxo egin daitezke litro 1 esnegain likidorekin?

Txokolatezko.....**5**..... bizkotxo egin daitezke.

- b) Zenbat kg kakao behar dira 8 bizkotxo egiteko?

...**2**... kg kakao behar dira.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	- Planteatutako galderetako bat ere ez du ongi erantzun.
1	- Planteatutako bi galderetako <b>bakarra</b> erantzun du ongi.
2	- Planteatutako <b>bi</b> galderak zuzen erantzun ditu.

- 20.** Zaldizko batek kaskoa erosi du zaldi gainean ibiltzeko. Kaskoak 68 € balio du eta billeteekin eta txanponekin ordaindu du. Aukera hauetan zein da zuzena?



- A. 10 €-ko 6 billete, 2 €-ko 2 txanpon eta 1€-ko 1 txanpon  
 B. 20 €-ko 2 billete, 10 €-ko 1 billete eta 2 €-ko 4 txanpon  
 C. 20 €-ko 3 billete, 5 €-ko 1 billete, 2 €-ko 1 txanpon eta 1 €-ko 1 txanpon  
 D. 10 €-ko 5 billete, 5 €-ko 1 billete, 2 €-ko 1 txanpon eta 1 €-ko 7 txanpon

**21.** Hipikaren arduradunak 25 zaku pentsu erosi ditu. 6 zaldi zela ere erosi ditu. Osozara, zenbat ordaindu du?



Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.

**Eragiketak:**

*Zenbait metodo baliozko daude, adibidez:*

$$25 \times 13 = 325 \text{ €}$$

$$6 \times 178 = 1068 \text{ €}$$


$$325 + 1068 = 1393 \text{ €}$$

**Guztira .....1393..... euro ordaindu ditu.**


Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
<b>0</b>	- Planteamendu okerra edo osatu gabea. - 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketa.
<b>1</b>	- Planteamendua zuzen egin du, baina kalkuluetan hutsegite <b><u>bakarra</u></b> egin du.
<b>2</b>	- Planteamendua zuzen egin du eta azken soluzio zuzena eman du.

22. Zaldizkoa bere zaldiarekin entrenatzen da astelehenetik ostiralera, eta zaldi zaintzen zenbait ordu ematen du. Hurrengo grafikoetan ageri da zenbat ordu aritzen den entrenatzen eta zenbat zaintzen.

### ENTRENAMENDUA



### ZAINTZE LANA



Ostegunean eta ostiralean, zenbat denbora pasa du zeregin bakoitzean?

- A. Entrenatzen: 110 minutu. Zaintzen: 7 ordu eta erdi.
- B. Entrenatzen: 120 minutu. Zaintzen: 7 ordu eta erdi.
- C. Entrenatzen: 120 minutu. Zaintzen: 8 ordu eta erdi.
- D. Entrenatzen: 110 minutu. Zaintzen: 8 ordu eta erdi.

**23.** Zaldi, behor eta moxal asko Urbasan bazkatzen da udan. Begira iezaiozu taulari:

Abere mota	Animalia kopurua
Zaldia	212
Behorra	1813
Moxala	1348



**Urbasako bazkalekuetan ibiltzen dira...**

- A. 2000 behor baino gehiago
- B. 300 zaldi baino gutxiago
- C. 1000 moxal baino zertxobait gutxiago
- D. 200 zaldi baino gutxiago

**24.** Abeltzain batek behiak ditu eta hiruko multzo berdinetan bereizi behar ditu, txertoa jartzeko. Behi kopurua edozein dela ere, zatiketa egin ondoren, hondarra izango da...

- A. 0, 1 edo 3
- B. 0, 1 edo 2
- C. 0, 2 edo 3
- D. 1, 2 edo 3

